


# EUSKO OLERIAK GAUR



- EZ DAKIGU ZER DANIK, BAINA  
GUREGAN BADA ERAGILLE  
BAKAN BAT.
- GUK BE, BESTE EDOZEIN  
ERRIK BEZELA, ZAZPI  
PEKATU-BURU DAUKAGUZ.

---

BIZKAITIK

A. ONAINDIA

---

**Goi-argia.**—Arte-arloan nailnoz bear da goitiko zerbaite; antxifia-koak «jainko-arnasa» eritxoen oni. Gizonak teknikaz asko lagundu daiteko berezko jitarri, baiña arte-lanean blok, berezkoa ta teknika, buztartzea lakovik ez dago.

Olerki bat biribiltzerakoan, adibidez, geure kontzientzi barruan egin ohi dogu galaren ausnartze sakon luzea; ortik dakusgunez, une orretan, goitiko zerbaitek arrotzen dausku izate osoa. Ez dakigu zer danik, baiña guregan bada eragille bakan bat. Bertsoak, ahapaldiak ontzen asl-ala, gaur ba-dot nik Iguntzaille bat; biar, ostera, ez daust leguntzen: gura dot, eta ezin. Zergaitik gaur bal ta biar ez?

Alan be, eder-lan bat burutu nahi dozunean, lanari oratu ta aurrez aurre jarten yatzuzan eragozpenak azpiratu ezin ba'dozuz, itz bat, esaera bat, itzul-inguru nahi pentsamentu bat beingoan ez ba'yatortzu,

etzaite larritu; berez-berez etorriko da bear dozuna. Emon egizuz ixillik, burua makur, minutu batzuk, edo-ta eratu ezin izan dozuzan auzi ta zerak zokoraturik, zoaz baratzena ordu-erdirako; itzuli gero gelara, jarri lan-maien, ar luma atz-artean eta idatzi... Itzak ez al datorkizuz errez, bolbolka ta alkaren leian? Baita inoiz euki izan ez dozuzan pentsamentuak be.

Zek lagundu dautzu? Goi-argiak nimbait. Goitiko zerbaitek ikutu dauz zure ezpirituaren ari dardaratiak; igarri barik kantari asi zara. Or zeure izate barruan euki dozun gogai, pentsamentu baten ausnartze ixil, argi-ez, laiño artekoaren ondorena dozu. Sagar-adarrak Iorea dakar; noiz eta zelan? Eta frantuak? Sagarondoari nok emon dautsa kemena lorarako, fruturako? Olako zerbait dozu ertiliariaren sorprenaren kondaira; loradun kondaira, atsegina garri geienik.

Goi-argi ori, edo, obeto ba'deritzazu, barne zauskada ori —zer edo norbaiten eragiña noski—, ertiliariak berez eskuratzentz ez dauna, beste indar batek dakartsona, bear-bearrezko dau lanerako, oler-lanerako atan be. Begira: lanari josia zagoz, abesti bat eio nai dozu; baiña asko saiatu arren, ezin dozu ezer jaritxi. Egizu, beraz, beste salo au: ez egizu ezer idatzi, ez irakurri, itxi maia gaiñean zeure luma, idazkortza ta, zeure baitan kiribildurik, gogartu egizu pizkaten: seguru asko, or barne-ixilletik jagiko jatzu poema eder baten gaia ta jantzia. Ur geldiari zotz bategaz lez, zerbaitek eragin dautzu, ta lanean asten zara, leiatsu asi be. Zerbaitek berotu dautzu barrua, ta or zoaz bideak zear tapa-tapa, karga astuna daroan burdiari bigarren zaldi buztarria jarri ba'leutsoe lez.

Goi-argi orrek dakarskuz gero eder-lana osotzeko lagun dagiskuen beste iru zeroak: lenen, bat-bateko dizdizak jo gaitunean geure barruan egin oihal gogaldi edo pentsaketa dator: astiro samar egin bear da au, oldoztu ta ausnartuz; gauzak edo gaiak gero ta argiagotuz doazalako, ondoren, gogoraldi bete indartsuagoa dagigu; eta azkenetik, ekintza dator, onek emoten dausku benetako bultzada lanari gogotsu oratzeko. Oitura deritzagu oni. Eta oiturak, ekanduak, izan be, asko esan nai dau: gaur ta biar arazo bardinean jardunaz oihu egiten gara, ta asieran gaitz yakuna atzenean errez. Lau uneok edozein lanetan aurkitzen dira; eurolatik ala be goi-argia bearrezkoena. Oinetxek bait dautse erti-lanaren ertz eta lits guztia bizitasun ñabarugaria ezarten.

Gure olerkia gaur.—Norbaitek esana dau euskal olerkia beerantza doala. Egia ete? Eta zergaitik? Olerkarien zabarkeria? Goi-argirik eza? Teknikaren urritasuna? Nun ete orren utsa?

Ni neu be tamalez, uste orretakoa nozu. Azkenengo bost urteetako beintzat aldatz beera goaz clerti-saillean. «Olerkia» il zanetik bear euren lanak nun argitara emon ez daukiela-ta. Gaurko euskal aldizkariak beintzat —«Zeruko Argia», «Goiz-Argi», «Anaitasuna»— ez dabe nai, bertsolarien lanez kanpo, gure irudimenaren txorakeririk. Orrein idazle ta irakurleen artean, ortarako girorik ez bear bada? Iruña'ko «Principe de Viana»-k eta mugaz andiko «Herria»-k, orralliano, txoro orrein lanak be emoten dauskuez, zorionez.

Olerkari geienak ba-dabe oraindik oler-lanerako griña ta irrika. Or lekuko urtero ospatu oihal gogaldi edo pentsaketa dator: astiro samar egin bear da au, oldoztu ta ausnartuz; gauzak edo gaiak gero ta argiagotuz doazalako, ondoren, gogoraldi bete indartsuagoa dagigu; eta azkenetik, ekintza dator, onek emoten dausku benetako bultzada lanari gogotsu oratzeko. Oitura deritzagu oni. Eta oiturak, ekanduak, izan be, asko esan nai dau: gaur ta biar arazo bardinean jardunaz oihu egiten gara, ta asieran gaitz yakuna atzenean errez. Lau uneok edozein lanetan aurkitzen dira; eurolatik ala be goi-argia bearrezkoena. Oinetxek bait dautse erti-lanaren ertz eta lits guztia bizitasun ñabarugaria ezarten.

Gaurko euskal aldizkariak ez dakit zer dala-ta ez dakarrezan literaturari eskiñitako orri batzuk. Erbestean orrela dagie ia danak. Gutartean, zergaitik ez? Euskalduna guztiz bertsozalea dogu, baiña atsegina yako goragoko poesi lana be; aspaldiko kanta zaarrak, irudimen joriko ta teknika ikasik gizaseme jakintsuak egiñak diranik ezin ukatu ezelan be. Gaurko olerkariok, ba, ortan ekin bearra dogu. Lena, oraiña ta geroa gogotan izanik, ain zuzen be. Bego gure lanetan lokarri estu bat iruron artean.

Lena.—Ez dot gitxitan esan: gure literatura, era batera, ez da urri ez exkax, poesiari begiratu ezkerro atan be. Olerkia-saillean atze ederra izan dogu. Ori ez uka. Baiña badira batzuk, gaurko dozenerdi gai-llurrean zut-zut jarten dabezalarik, lengoak aitatzen be lotsa diranak. Alan be, or ziñaldari ta testigu nire Milla euskal Olerki eder, oraintsu ale mardul bitan Retana jaunak bigarrenez argitara emona; naiz azalez

Eusko olerkariak gaur, Karmel 1977-1, 87-93.  
Olerkigintzan, Karmel 1977-2, 83-86.  
Gaurko olerkariak, Karmel 1977-3, 65-69.  
Eder-auzia, Karmel 1977-4, 63-68.  
José Eltzo olerkaria (1894-1916), PVV 12 (1977, 126).  
Bertsolarien pikoa, PVV 12 (1977, 126).

naiz mamiñez liburu bikaiña. Ta lengo gizaldietako euskal poesi berrutia pizkat arakatu ta astindu ezkerro, amar olako antolatu geinkez, asko nekatu barik. Ez, ez da urria izan olerzia, frutu ederrez betea baiño.

Azken urteotan, baiña, izan dira —ta gaur be bai— lena zapuztu dabentzak, aurretik egin lanarekin ezer nai ez dabentzak. Zarrastatu goitik beera lengoaren miesa, edo-ta orma tinko bat jaso lenaren eta orainaren artean. «Ez dogu lengorik nai», garrisika esan. Jokabide erakarpen izugarritz bereganatzen gaitu. Egizu «froga», gazte; erantz, lenak emona —kondaira, ikasketa, teknika, etxe, asmakizun eta abar— eta narru gorrian geldituko. Miiñez eta idatziz, ez gitxitan, esan dogu: «Utsetik asi nai dot, lenari agur egiñez». Bail Egin, alba'dozu!

Ori eziña yatzun ezkerro, bego lenaren eta gure artean, lena orain samurkiro alkartzen dituan ari leun, gozo ta urratu-gatxa Lenak dakarsuzan eskuerakutsi eder, dizditsu ta balio aundikoak aintzat artuaz, goazan aurrera, beti buru-tente, lenari esku emonik eta irrikoi datorkigun geroari kantari ta agurka. Ez gaitezan iñoi; egonean egon, Narkis'en antzera, geure ederrak, jakituriak eta egin lanak lilluratuta. Guztiek alkar arturik, gorago beti. Excelsior!

**Orain.**—Olerkaria ez da arrunta, egunero bidez bide aurkitzen dana. Banaka batzuk ziran, aldiz aldi, Israel erriak eukazan igarles —vates, prophetae—, erriaren eta Jainkoaren arteko artu-emonik eratzetan ebezanak. Errietako olerkariak be, benetakoak beintzat, ez dira asko izaten; eurok, alan be, egiteko ikaragarria dabe errari begira. Guk era bitako igarleak ditugula, esan daikegu: bertsolariak edozeiñek ez dauan doai bikaiñez jantziak, eta olerkariak —poetak— goi-indar, jakituri ta eder-lanezko teknikaz orniduak.

Onelako asko al dogu gaur Euskalerrian? Bertsolariak, polito olerkariak be, naikoa. Eta bizi garean une onetan danen premiaz gagoz. Esan dodanez, barriro azaldu da orain ogei ta iru uste ateretan **Milla euskal Olerki Eder** poesi-liburua. Arrezkerro jausi da eurirk baita Euskalerriak olerkari naikoa sortu be. Iñoren gogoa niretz agindu baita, beste ale bat, tomu bat osotu dot —mardula au berrezkeroko poeten lanik onenakaz, 1954'tik onunzko olerkarien lenakin. Egiña dot bilduma barria. Berton zenbatan lanak sartu dituadu

jakin nairik, zenbaketara jo dot, eta ba al dakizu zenbatan lanak datozan? Eun batenak. Bada zerbait! Euskal lurrean ba-dira gaur be poesi-doaiak indar-azo ta bitxituak.

Eta, jakin-miñez bizi bait gara, sarri itandu dauste ia, neure eritziz, gaur gure artean zeintzuk doguzan olerkariak onenak, euskeraz nunbait. Oraintxe berton, lantxo au bardintzean, izen-zerrenda bat osotu dot neure bilduma barritik. Olerkari bakotxak, ez poesi bat edo bi idatziaz, urteak zear egin dauen lana gogotan izanik, ona zarrentzatik gazteenetaraiño urtez urte osoturiko erreskada: N. Etxaniz, Tx. Jakakortajarena, J. Zaitegi, I. Goikoetxea, Jagoba, F. Artola, E. Erkiaga, S. Muniategi, B. Aurre-Apraiz, P. Solozabal, M. Ugarte, J. Diharze, J. San Martin, J. Mirande, J. M. Lekuona, B. Gandiaga, G. Aresti, J. Erdozainzi-Etxart, A. Bilbao, Mikel Lasa, L. M. Mujika, J. Azurmendi, P. Iztueta ta X. Lete. Bildumak argia ikusi ta zuok, olerkariok, xorta onetako lanak irakurri dagizuezanean, orduantxe esango daustazue egiazkoa dan ala ez, gaur nik Olinpu gaiñetik emoten dodan epai au. Euskal-errian ba-dala olerkari bikainik gaur berton diñotzuet, ala be.

Aitaturiko cgei ta lauok, craindik —bi ezik— bizi diranok, **dii maiores** —jainko nagusi— lez doguz, euskal olerki Parnasoko Batzar gallena dagitenak; baiña orreik be, irurogei ta amabostetik gora, —**dii minores**—, batzarkide doguz. Eta guztiok, bat bera saiets itxi-teke, gero ta gogotsuago lanari ekin bearrean aurkitzen gara. Ba-dira, ta ez gitxi, iru-lau possi tinkotu dabezala-ta, olerkari sagaratutzat euren buruak daukezanak. Bai, bai zera! Olakoren batzuk ezagutu izan doguz munduko literaturetan. Baiña bakanak dituzu. Guk idatzil egin bear dogu, lanari lotu ta orretan jardun egundo aspertu barik. Goi-arnasak ez-arian gure barrena leun-azten. Beean dana, ba, alegindu bedi goragoko maila lortzen, baiña ez miiñez eta txibitez, Irakatsi yaukalez baiño. Goikoak, barriz, jatsi beitez zertxobait euren aurki gurenegitik, eta beerantza makurtuz eskiñi begioe beekoa euren esku antzetua. Guztioi dagokigu Euskalerria on-ederrez jaztea.

Sarri entzunak gara, ain zuzen be, poetak jaso oi daula euren erria, gidariaren zuzi antzo beti aurretik joanaz. Olerkari askok egin dabe, dakigunez, orrelaxe; or Moises, erria eremuan zear doroala, kantari; or Rizal Filipina'n; or Arana-Goiri'tar Sabin, Abando'n; or Mao-Tse-Tung, Txina'n. Eta emen gure arloa Euskalerrian, gaur ba-

...bere, Karmel 1977-2, 18-19; Eusko olerkarriak gaur, Karmel 1977-1, 87-93; Olerkigintzan, Karmel 1977-2, 83-86; Gaurko olerkariak, Karmel 1977-3, 65-69; Eder-azua, Karmel 1977-4, 63-68; José Eltzo olerkaria (1894-1916), PVV 12 (1977); Bertsolarien pikoa, PVV 12 (1977)

tez be; ez dogu aukera txarra guzionak diran atsekabe, pozaldi auziak bertsotan abesteko. Bedi ikasbide zindo gerokoentzat guk orain dagigun kondaira.

**Geroa.**—Gauzai onela naiz arela begiratu, aurrekoak —gurasoak— erriak— ondorengoa zer —gizarte, errialde— obe bat laga bez, dautsee naitaez. Goanak eta craiñka izpillu eder izan bear dau etor kizun danarentzat. Gaur egun gizona goraltzen dogu munduko jaink bakarra, indartsua bera soñki bailitzan, Goikoak —Urtzi'k, Absolut loak, Jaun-Goikoak— egiñiko gizaki kaxkar bat besterik izan ezta be izan daitela, bai, aundi, guren, zariontsu; noizik ez dausku ardura izan daitela noizbait; gercago, alkar arteko mailla goraberak, galera rako buruauste ta auziak onez atondu ostean.

Guk zelako zoriona opako geure erriarentzat? Gure ondorengoa, baketsu, zorioneko, gu baiño obeto bizi daitezala: auxe da guztio gogo doguna. Eta orretan gabiltz danok, alako edo orrelako bidesatik, baiña jomuga bat-berak eraginda. Olerkariok, beraz, ba-dakig, zertan saiatu bearra dogun. Gure erria, geu ez ba'gara be, bere berraren jabe izan dedilla, ez dagiala naigaberik izan, ez burrukarik, ezin-ikusirik, ez gorrotorik; iraun dagiala alkarturik, lan egiñez, bat besteari lagunduz, bere gauzak zaindu ta goratuz... Orri loturik jadan bearra dogu, erriaren aurrelari izanik.

Erria zuspertu, jaso ta poztazi bear dau clerkariak. Euskalerria zenbat doal eder, zenbat gauza zoragarri dituan! Ur ta lur amets eziña, sorterri asegarri; enderri trebe zaiñartsu; izkuntza bardina bakoa; kanta, jolas, dantza, antxiña-antxiñako lege bikaiñak; euskal lurra, len, orain ta beti Jainkoak bedeinkatua; bizi —bearrak berrekarritako auzi, korapillo, larrialdi ta alai-unez betea. Auxe da gun Euskalerria, eta auxe da guk olerkariok kanta bear doguna. Len kantuz bizi zan euskalduna. Bedi aurrerantzean be kantari.

Baiña kontuz, olerkari; ez naspildu erria, zeure griña ta gurrñabarrai giltzetik geiegi emonaz. Esna-azo bai lozorrotik, ez ded zapalduta bizi, zuzentasunik bage, illuneko laiñotza goibelean. Amatzetze estali yaku azkenengo bi-iru urte-amarnakoetan; orreik be, gurenengoak lez, geuretu diaguzan, geure Jainkoz, geure izate-arnasaz, geure lan-gogoz, geure bake ta zorionez oreturik. Or guzion egitekoa. Lederregia atondu euskun Jaunak, eta edozein ordutan ona daton guzanak ez doaz erreza gure artetik; txarrean ezingo doguz txak

gogaikarri lez geugandik astindu; orreik be, ba, onez geureturik, antxiñako erraza bizkor onen txerta-kimu beitez, danon lei bizi ta bero unkigarriz Euzkadi anaitsu bat burutuaz.

Arras itsusia dozu gizona, grinape jausia. Ez al dozu olakorik ikusi? Zelako arpegial Gorputz guztia dardarka! Ezpanak bits-jario, ta begiak nirñir, abere zakar dirudil! Ez gaitezan olako izan. Guk be, beste edozein errik bezela, zazpi pekatu-buru daukaguz. Oso nabariak sarri. Batak besteari dautsagun bekaitz, ezin-ikusi ta inbidi ori, ez da txikienetarikoa. Pekatu-buru orrez garbi daigun geure barrua, ta askozaz bizkorrago giñakez lanerako. Ez geunkeo iñori agiñik ezarriko, ez lumaz, ez itzez. Gure lana atsegíñagoa izango litzake. Euliak ezti-murkora jo oi dabe, ta ozpin-ontzitik iges. Guk sarri dagiguzan kritikakaitik diñot au.

JOSTUNTZA...

ETA

JOSTAILE...

EGOKIENA...

AZPIRI'TAR ESTEBANEN DENDAN!!!

ARRAGUETA, 25

Tel. 712766

EIBAR